



BARREN
TOKIKOM

aek 21. korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



Aprilaren 12an, klika!

Maria Urizar
ile-apaindegia



25 urteren ostean ile-apaindegi berria dauka Maria Urizarrek

20 urterekin hasi zen ile-apaintzaile lanean Maria Urizar. Errosario kaleko etxebizitza batean kokatu zuen ile-apaindegia, eta hantxe jardun du lanean oraintsu arte. 25 urte pasatu dira ordutik, eta ile-apaindegia lekuz aldatzea erabaki du. San Bartolome kaleko 15ean dagoen lokalean egokitu du ile-apaindegi berria, kalean bertan, herritarren bistara, bezeroen esku-eskura. Lokal polita geratu zaio, argitsua, berria,... Pozik dago aldaketarekin, eta etapa berriari ekiteko ilusioz dago.

Mariak eskerrak eman nahi dizkie bezero izan dituen guztiei 25 urte hauetan izandako kofidantzagatik.



Maria Urizar ile-apaindegia

San Bartolome, 15, behea
943 744 489 - ELGOIBAR

DESKONTUAK:

Jubilatuek: %10

Asteartero %10eko deskontua ile-tindaketan

Ostegunero %10eko deskontua ile-mozketan

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



“Gizaki zuzena”, gizarteak behar duen espeziea

tako txertoek sekulako arrakasta izan dute populazioaren sektore horretan (frankori «vox axola» politikak). Dirudienez, edozein egoeratan erraz moldatzeko ahalmenak lagundu egin dio mota honi maila guztietan zabaltzen. Lehen, estatusak bereizten zuen gainontzeko espezieengandik. Gaur egun, aldiz, nahiz eta mundua gaizki dagoela jakin, langile, langabetu, etorkin, gazte... askok bat egin ohi dute «gizaki zuzenaren» filosofia-rekin, eta ez du oso gaizki ikusten bere espeziekoak odola xurgatzen badio.

“Nahiz eta mundua gaizki dagoela jakin, langile, langabetu, etorkin... askok bat egin ohi dute ‘gizaki zuzenaren’ filosofiarekin”

Egokieran, beti hobeto gertukoak egiten badu urrutikoak baino. Bestalde, ezer gutxi behar dute barruko gosea baretzeko. Izan ere, mundu arina nahi dugu: %O gantz materia, edulkoratzailea... Gainera, gehienek hautetsontzia dute sabel zorriak elikatzeke modu bakarra, eta ausartenek, lantzean behin, taberna zuloa, telebista... aldarrikapenak egiteko bozgorailu. Beraz, zertarako aldatetarik, «gizaki zuzenaren» biziraupena garrantzuta baldin badago?

OHARRA: apirilaren 28an eta maiatzaren 26an Hego Euskal Herriko “gizaki zuzenok” bi aldiz joko dugu bozkalekulara. Zaila izango da hautu hori deialdi bakoitzaren berezko esparrura mugatzea, eta are zailago, denbora honetan den dena isilaraziko duen burrunbadari ihes egitea. Hala ere, nik argi dut: aukeran «gizaki (EZ) zuzenok» irabaztea dut nahiago, bestela orain arte bezala jarraituko dugu, eta zer aspergarria, ezta!

Nostalgikoez noiz edo noiz esanda, bestelakoa entzuten baldin badugu ere, egungo «gizaki zuzenak» ez omen du larritzeko arazo handirik. Tarteko ahaleginak, hazkurarena, esaterako-zenbait unetan deseroso sentiarazi ohi badute ere, «gizaki prototipoaren» egoera ona da, orokorrean. Egunerokoetan oso eroso bizi da, eta bizitza luzea antzematen diote, batzuek bizi maila txarra dutelarik ere. Hori dela eta, espezieetan espezimena ei da, arituen ustez. Izan ere, orain arte erabili-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskoaldueraren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutiak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALAK
KULTURAREN

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKERO



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► HERRIKO MERKATARITZA

Zer egin herriko merkataritza bultzatzeko? Galdetu zigun Mendaroko Udalak orain egun batzuk herriko dendariekin egin zuen bileran. Aipatu ziren hainbat formula: Bonoak, online eskaintza, ... baina, ez dago formula magikorik, kontua da herri eta kaleak bizirik nahi baditugu merkataritxiak irautea garrantzitsua dela. Horrek ez du esan nahi herriatik kanpo kontsumitu behar ez denik, baina bai erosketen zati bat denok herrian egiten badugu, denok aterako garela irabazten. Orain hauteskunde garaian gaudela, hautagaiek guzti hau ere izan dezatela kontuan eta "adibidearekin" erakutsi dezatela beraiek ere besteentzako eredu direla, ez dela Udal bezala soilik merkataritza bultzatu behar,

beraiek ere herriko biztanle bezala ikus ditagula herriko dendetan kontsumitzen. Orain urte batzuk Euskal Herriko paisajista ezagun batek Mendaron eman zuen hitzaldi batean esan zuen bezala: "Herrian erosten ez duen agintariak, herriko produktak kontsumitzen ez baditu, pentsatu norrentzako ari den lanean".

Leire Arriola

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitz argitaratuko.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila altua izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Berezietako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera merituen arabera baloratuko zaizkie.
- Datak: apirilaren 12an; arratsaldean, eta 13an; goizean.
- Hautatuak oinarrizko prestakuntza-asteburu batean hartu beharko dute parte ekainaren 1etik 2ra.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Apirilak 9, martitzena

Non eta nola:
www.elgoibarkoizarra.eus webgunean laga zure curriculumak,
Gurean lan egin nahi baduzu atsean.



Klika konpromisoari

Gaur zortzi, apirilaren 12an, iritsiko da Korrika gurera. Atzo abiatu zen euskararen aldeko AEKren bi urtean behingo egitasmoa, Garesen, eta apirilaren 14an bukatuko da Gasteizen, Euskal Herri osoko bideak eta errepideak zeharkatu ostean. Tarte horretan, milaka lagun irtengo dira bidera, euskara hizkuntza, kultura eta mundu bat dela aldarrikatzera; konpromisoaren alde klika egitera. Goizean goiz iritsiko da gurera oraingoan, kostaldetik, Kalbarioko gainetik pasata. Mendaroarren txatarrerri pare horretan hartuko diete lekukoa debarrei, 6:50ean. Mendaro zeharkatu ostean, Elgoibarrerantz etorriko da. Ondo bidean, 7:20 buelta horretan hartuko dute lekukoa elgoibartarrek Rodisa parean, eta Mauxitxa txarangakoak zain izango ditu Malan, ongietorria egiteko. Elgoibartik Azkaraterako bidea hartuko du gero.

- AINARA ARGOTIA -

Badator berriro Korrika. 1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrika antolatu zutenetik, euskararen alde antolatu zuten den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordutik, 20 Korrika eta 38 urte igaro dira, baina orduko helburu berari eusten dio Korrikak: batetik, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea, eta bestetik, gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Garesen egin zuten hasierako ekitaldia atzo, eta hantxe sartu zuten mezua lekukoan, eskuz esku, Gasteizeraino eramateko. Izarreibarko eta Mañeruibarko hamasei herrietako ordezkari banak eraman zuten lekukoa lehen kilometroan, eta Izarreibarren euskararak tinko aurrera egiteko Korrikak hauspo izan nahi duela aldarrikatu zuten. Euskararen hauspoa. Horixe izan nahi du Korrikak, eta bada hein handi batean. Hala ulertu dute herritarrek ere, eta euskarari arnasa emateko konpromisoari heldu diote, kilometroak eta Korrikaren aldeko materiala erosiz.

Klika da aurtengo leloa. "Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea, hautua egitea. Hautua da euskara ikastea, erabiltzea, inplikatzeta, jautzia ematea. Klika egitea da euskaraz ahalduntzea, euskaltegietan matrikulatzea. Klika da herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea", jaso du AEK-k, Korrikaren antolatzaileak. Konpromisoa hartzea da azken batean Klika egitea. Eta euskararen alde konpromiso handiz jardun zen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i izango da aurtengo omendua. Herriak hizkuntza beharrezkoa duela aldarrikatu zuen Txillardegik eta Euskal Herriak euskara ezinbesteko ezaugarria duela. 21. Korrikaren hitzak eta ahotsak, berri, Mad Muasel, Fermin Muguruza eta La Furiak sortu dituzte, eta Muguruzak berak zuzendu du ekoizpena.

MENDARO.....

- ◆ Lizarpe Mendi Kluba, Mendaroko Txirrindulari Elkarte eta Giza proba taldea (Txatarrerri paretik autopistako zubipera)
- ◆ RTS (Zubipetik-Lizantzura)
- ◆ Motxaila Band / Motxaila Elkarte (Lizantzutik Azpilgoetako autobus geltokira)
- ◆ Ameikutz Musika Eskola (Autobus geltokitik zubi amaiera arte)
- ◆ Ludoteka-Gazteleku (Udaletxe ondotik anbulatoriora, atzeko aldetik)
- ◆ Ikastola eta Arno Guraso elkarte (Anbulatoriotik ikastolara)
- ◆ Bizi Poza txaranga (Ikastolatik biribilgunera)
- ◆ Gaztetxea (Biribilgunetik DMP parera, errepide nagusitik)
- ◆ Mendaro Ospitala (Aingeru Guardatik Lanbira)
- ◆ Mendaroko EAJ (Lanbitik Altzola hasiera)
- ◆ Mendaroko Bildu (Altzola hasieratik erdira)
- ◆ Mendaroko Udala (Altzolako errebuelta pasa arte)

ELGOIBAR.....

- ◆ Rodisako LAB-ekoak (Altzolako errebuelta ondoren)
- ◆ Alcorta Forging Group S.A. (Rodisa parean)
- ◆ Haritz Euskal Dantzari Taldea (Karkizano gaina)
- ◆ Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea (Melitongo zubi ondoko aparkalekuan)
- ◆ IMH, Meka Lanbide Heziketa, Meka DBH, Meka Batxilergoa (AEK parean, Gabriel Kurutzelaegin)
- ◆ Mauxitxa Txaranga (Txarridunaneke biribilgunean)
- ◆ Elgoibar Ikastolako gurasoak (Pilar fruta dendan)
- ◆ Elgoibar Ikastolako langileak (Lehen Quintin zen lekuan)
- ◆ Txankakua Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkarte (Fadec ide apaindegi aurrean)
- ◆ Elgoibarko Udaleko langileak (Mahats ardandegia)
- ◆ Elgoibarko Udalaren Euskara Saila (Azkue argazki denda)
- ◆ Elgoibarko EAJ (King Kong parean, San Frantzisko kaleetik)
- ◆ AEK euskaltegia (Txarridunako biribilgunea)
- ◆ Biharko San Lazaro Egoitza (La Perla taberna)
- ◆ Haizea Emakume Taldea (Tren tunela)
- ◆ Danobat Kooperatiba (Argindar zentrala)
- ◆ Ideko Kooperatiba (Larrialdi bidea, 38. km-a)
- ◆ Goiti Kooperatiba (37. km-a)
- ◆ CD Elgoibar (36,5 km-a)
- ◆ Morkaiko Mendizale Elkarte (Azkarate erdiko zubipea. 36. km-a)
- ◆ Azkue Argazkiak (35. km-a)

ANDRES ALBERDI, Euskaltzain urgazlea**Txillardegiz, huntaz eta hartaz**

1988an ezagutu nuen aurrez aurre Txillardegi. EHUK Donostiako Zorroagan zeukan egoitzan ziharduen irakasle Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Ni Elgoibarko Euskara Mintegiaren izenean joan nintzaion kolaborazio eske orduantxe atontzen ari ginen UBiko —gaur egungo Batxilergoko 2. mailako— ikaslibururako. Laguntza eman ez ezik, sutzuki animatu gintuen liburugintzako gure lanean irmo jarraitzeko.

Eta horixe zen, nire ustez, berak ezeren gainera zuena: irmotasuna. Irmotasuna bere bizitzaren alorrik ezagunenetan: politikan, literatura eta letretan, eta bide-urratzaile gisara. Berak bere artikulu batean Nietzscheri buruz esandakoa berari ere egoki lotzen zitzaion/zaio. Zer izan zen Txillardegi?... *“heren profeta, heren filosofo, heren olerkari”*.

Profeta, dela jatorrizko zentzuan ulertuta (‘jendaurrean hitz egiten duena), dela bigarren adieran ere (‘etorkizunaren iragarle’). Zein izan zen, ba, lan profetiko horretan aintzindari gaur egun ezagutzen dugun euskara batuaren hastapenetan?

Filosofo, batez ere bere *Huntaz eta hartaz* liburua tarteko, zeinaren bidez ohartu baikinaren gure belaunaldikook euskara gai zela edozein gaitan sakontzeko, zein-nahi pentsamendu moderno mamitzeko.

Olerkari edo literatura-gizon. Haren eleberriak (*Leturiaren egunkari ezkutua, Elsa Scheelen, Haizeaz bestaldetik...*) oinarrizko irakurketak izan ziren orduko ikasle gazteentzat.

Utzidazue, baina, laugarren ezaugarri bat ere aipatzen: *hizkuntzalaria*. Polifazetikoa izaki, hizkuntza-kontuetan ere haren emana eta itzala beti izan genuen presente gure testugintzan, eta haren lanak (*Euskal azentua, Euskal Fonologia, Euskal Gramatika, Oinarri bila...*) oinarrizko bazka izan ziren gure ekinean, alde guztietatik hain idorra eta zekena zen garai hartako euskararen ibilbidean.

Eta behin honetara ezker, lagaidazue bosgarren ezaugarri bat ere adierazten: *ekintzailea*. Zuen barne-sua solaskideari transmititu nahi izaten zion. Horren isla da berak behin eta berriro bere idazkien bukaeran esan ohi zuen esaldi hura: *“Zuk duzu hitza, irakurle”*.



FELIX ETXEBERRIA

Felix Etxeberria *Parapanek* ez du lekukoa hartuko aurten. Eta albiste da bere horretan, bizpahiru ediziotan ez beste guztietan parte hartu duelako. 1980ko estreinako hartan, Oñatiko unibertsitatetik bertatik abiatu zen bera ere korrika, Jose Mari Satrustegi euskaltzale nafarraren atzetik, elurretan. Estreinako hartan, Maltzagan hartu zuen *Parapanek* lekukoa, Elgoibarko Izarraren izenean. Hasierako urteetan kilometroak bere patrikako diruz erosten zituen, edota Etxepe lantegiaren izenean. Gerora, Euskadiko Kutxak erosten zuen, eta Jabier Zengotita, Jose Gurrutxaga eta hirurek eraman ohi zuten lekukoa (2013ko edizioan, Gloria Bollar ere haiekin izan zen). Hain justu ere, 1993koan, zortzigarren edizioan, oroigarria jaso zuten hirurek Gotzon Garate zenaren eskutik. Korrika-ko partaide beterano izateagatik nabarmendu zituzten. Duela bi urtekoan, Hasier semea hil berrian, berriz irten zen saltaka Korrikan, alaba Arantza eta eta iloba Mikel eta Xabier Arriolak lagunduta.

BESTE KORRIKAK ELGOIBARREN

Korrika Txikiak

Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu dute Elgoibarko Korrika Txikia eta Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute elkarrekin. Apirilaren 12an bertan egingo dute, 10:00etan hasita. San Lazaro egoitzakoek ekarriko diete lekukoa Maalaraino eskola-umeei, eta han Herri Eskolako eta Ikastolako LH6ko ikasleek hartuko dute. King Kong parean izango dituzte bi ikastexetako LH5ekoak zain haiek eta San Bartolome kaletik zehar plazaraino eramango dute lekukoa, han LH4ko ikasleei emateko. Santa Ana pareko Eroskin izango dituzte haiek zain LH3ko lagunak, eta plazaraino ekarriko dute haiek bueltan lekukoa, atzetik segizioa dutela. Plazan LH2koek hartuko dute gero, eta Kultur Etxe parean LH1ekoak batuko zaizkie. Haiek, Errosario kaletik barrena, plazaraino eramango dute lekukoa, eta han bukatuko dute Korrika txikia, 10:30ak aldera. Manifestu bat irakurri eta bertsoak kantatuko dituzte han, eta amaierako ekitaldi hori Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika taldekoek girotuko dute. Euria egingo balu, Maalako aterpera mugatuko dute dena. Haur Hezkuntzako ikasleek ere egingo dute Korrika. Ikastolakoek zentro barruan egingo dute gaur zortzi, baina Herri Eskolakoak kalera irtengo dira, auzoan, bezperan, apirilaren 11n. Haur Hezkuntzako 5 urtekoek hasiko dute Korrika Txanpinoiaren gaineko aldean, Urazandi kaleko 43. zenbakian gutxi gorabehera, eta handik behera abiatuko dira. PSE-EEren lokal parean batuko zaizkie HH4koak gero eta Kalamua kalean gora egingo dute. Eskolako aparkalekuan HH3koak sartuko dira, eta jolastokian zehar egingo dute korrika. Han, HH2koak izango dituzte zain.



Korrika Gaztea

IMHk, Mekak, Elgoibar BHI institutuak eta Elgoibar Ikastolak antolatu dute apirilaren 12rako. 11:30ean hasiko dute Korrika gaztea, IMHn, eta ordubete geroago bukatzea aurreikusi dute, hasitako leku berean.

KORRIKA TXIKIA MENDARON

Ikastola parean abiatuko da Korrika Txikia, 11:00etan, eta herriko bi auzo nagusiak batuko dituzte. Ikastola parean hasiko dute korrika Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek eta Mendarozabalera joko dute. Han buelta eman eta San Jose plaza gurutzatuko dute gero, eta ikastola parean, LH5eko ikasleei emango diete lekukoa. Errepide nagusia azpitik gurutzatuko dute gero bi taldeek Intzarbakuntzan gora eginda Azpilgoetan sartzeko, eta aldapa hasieran, LH4ko ikasleak batuko zaizkie. Azpilgoetako zubi hasieran batuko zaizkie LH3koak, eta zubiko eskailera parean LH2koak. LH1eko ikasleak farmazia parean batuko zaizkie eta Coviran hurrean Haur Hezkuntzako azken mailakoak, 5 urtekoak. Tren geltoki parean 4 urtekoak gehituko zaizkie tropelari eta ikastolan bukatuko dute korrika txikia, kalejira batekin. Ikastolako arrapalan izango dituzte zain ikastolako txikiak.



Sukalde batek sua hartu du Santa Ana kaleko etxe batean



Santa Ana kaleko 28. zenbakiko laugarren solairuko sukaldeak su hartu zuen astelehen eguerdian. Sukaldeko ke-erazgailuak hartu su hartu zuen, eta gainera armairua ere erre egin zen berehala. Suhiltzaileak iritsi aurretik sartu ziren Elgoibarko udaltzainak su hartu zuen sukaldera, eta haien aurretik beste hiru herritar. Azken horiek ke erazgailua Deba ibaira bota zuten etxe bakoitik. Eibarko eta Azpeitiko suhiltzaileak etorri ziren, baina ordurako sutea kontrolpean zegoen. Tentsio oneak bizi izan ziren, etxe horretan adineko emakume bat bizi delako, eta etxepean gurgildun aukian ibiltzen diren bizilagunak ere badaudelako. Zorionez, suak kalte materialak bakarrik eragin zituen.

Atxutxiamaiika eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea astelehenean zabalduko dute

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiika egitasmoak eta Udal Ludotekak haurrentzako aisia eskaintza zabaldu dute udako oporraldirako. Astelehenean zabalduko dute izena emateko epea, eta apirilaren 14ra arte egongo da izena emateko aukera. Hiru bide jarri dituzte:

- ◆ Elgoibarko Izarra (943 741 626): astelehenean ostiralera (8:30 -14:00 / 16:00 -18:00)
- ◆ Ludoteka (943 748 883): Astelehenean ostiralera (15:00 -19:00)
- ◆ www.elgoibarkoizarra.eus webgunea.

Ekinaren 24tik uztailaren 19ra arteko eskaintza prestatu dute: adin tartera banatu dituzte programazioak, HH2tik LH6ra arte. Udalak diru-laguntzak emango ditu: DSBI (RGI) eta GLL (AES) diru-laguntza jasotzen dutenek kuotaren %70a jasoko dute; familia ugariak, guraso bakarreko familiek eta bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenek, aldiz, kuotaren %30a.

10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak behar dira 'Ilargi guztiak' filmerako

Igor Legarreta zuzendaria *Ilargi guztiak* luzemetraia prestatzen ari da Kowalski ekoiztetxearekin, eta filmerako aktore bila ari dira. 10-13 urte bitarteko neska eta 11-16 urte bitarteko mutilak behar dituzte zehazki. Castingean parte hartzeko, umeen datuak (adina eta herria) eta argazki bat bidali behar da ilargiguztiak-casting@gmail.com helbide elektronikora.

Fatxadak berritzeko diru-laguntzak

Herriko fatxadak berritzeko 75.000 euroko diru-laguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak, bigarren urtez. Alde zaharreko fatxadak, Deba ibaira ematen dutenak, eta Altzola eta Olasogain auzoetako eraikinetako fatxadak berritzea da helburua. Diru-laguntzaren zenbatekoa gastuaren % 25ekoa izango da: hau da, emandako baimen bakoitzeko, gehienez, 3.000 eurokoa. Eskararak Elgoibarko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurrez aurre edo Udalaren webguneko hiritarren atarian aurkeztu behar dira apirilaren 3tik azaroaren 13ra bitartean.

Costa Brava eta Errumaniarako bidaietarako azken txartelak salgai

Jubilatuak Biltokiak maiatzean Costa Brava eta ekainean Errumaniara joateko bi bidaiak antolatu ditu, eta azken txartel batzuk baino ez dira geratzen. Zuzendaritzakoek eskatu dute interesa duenak lehenbailehen emateko izena.

Bidaia horiez gain, Zugarramurdira txangoa antolatu dute maiatzaren 8rako, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. 8:00etan irtengo dira Elgoibarko, eta hamarretako egiteko iritsiko dira Zugarramurdira. Sorginen etxea eta kobazuloa bisitatuko dituzte, eta bazkalostean, Lesakara joango dira.

Zuzendaritzako kideak astelehen eta ostiraletan egoten dira Jubilatuen egoitzako bulegoan, 11:00etatik 12:00etara, eta nahi duenak bertan eskuratu dezake informazio gehiago.

► Enetz Ezenarro proposatu du EHBilduk Mendaroko alkate izateko



Mendaroko EHBilduk eguazten iluntzean aurkeztu zuen Udal Hauteskundeetako alkategaia: Enetz Ezenarro. Matematikan lizentziatua eta EHUko irakaslea da. 41 urte ditu, eta bi seme-alaben aita da. Sonia Garciak bi legealdi egin ditu Mendaroko alkate, eta zortzi urteko agintaldiaren ostean kargua uztea erabaki du. Enetz Ezenarrok hartuko du aurrerantzean, beraz, Sonia Garciairen lekua.

► Berkoa Machine Tools enpresa bisitatu du Markel Olano diputatu nagusiak

Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak Elgoibarko Berkoa Machine Tools kooperatiba bisitatu zuen joan zen astean, Ainhoa Aizpuru eta Imanol Lasar foru diputatuekin eta Elgoibarko alkate Ane Beitiarekin batera. Besteak beste, makina erreminta berrikuntzaren eta pertsonen talentuaren alde egiten ari den "etengabeko ahalegin aitzindaria" nabarmendu zuen Olanok, eta makina-erremintaren ibilbidea arrakastatsua izaten ari dela nabarmendu zuen, enpresak 4.0 industriaren iraultzara egokitzeko garaian. Olanoren iritziz, etengabeko ahalegin horren lekuko da Berkoa enpresa. 2016an sortu zuten kooperatiba hau garai bateko Konordia enpresako langile ohiek, eta gaur egun, batez ere,



automozioa, aeronautika eta ekipo ondasunetarako makina-erreminta fabrikatzen du. Berrikuntzan eta 4.0 industrian egindako ahaleginari esker, nazioarteko merkatuetan gero eta sendoago dihardu lanean, eta bere produkzioaren erdia baino gehiago kanpoan saltzen du.

Berkoa enpresa ezagutu ostean, Erreminta Makinaren Museoa bisitatu zuen Ahaldu Nagusiak. 20 urte bete berri ditu museoak, eta etapa berri honetan museoa bera gizarteratzea izango dute helburu nagusia. Orain arteko ibilbidearen berri eta etorkizunerako dituzten erronkak azaldu zizkieten Olanori museora egin zuen bisitan. Azkenik, Aita Agirre plazan eraikitzen ari diren kulturguneko obrak bisitatu zituen Olanok.

► Jon Peli Uriguen eta Juan Karlos Izagirreraren ekitaldia gaur, Elgoibarren



Elgoibarko EHBilduk ekitaldi politikoa iragarri du gaur arratsalderako: Jon Peli Uriguen Elgoibarko alkategaia eta Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako ahaldu izateko hautagaiaren arteko solasaldia antolatu dute. Giza Eskubideen parkean izango da, 19:00etatik aurrera, eta Elgoibarko eta Gipuzkoako gaiak jorratuko dituzte. Amaieran luntxa egongo da.

EHBildu, bestalde, auzoz auzo ari da bizilagunen kezka eta beharrak jasotzen. Joan zen astean Sigmako bizilagunekin batu ziren, eta aste honetan gauza bera egin dute Altzolako eta San Rokeko bizilagunekin.

“Egunero esaten diot nire buruari zorte handia daukadala”



▶ JON OLIVARES ‘PATRIA’ TELESAILKO AKTOREA

Jon Olivares (Osintxu, 1988) izango da Joxe Mari etakidea, HBOren *Patria* telesailan. Ramon Aranburu idazle donostiarraren eleberririk arrakastatsuan oinarrituta dago telesaila, eta euskal gatazkaren erdian aurkitzen diren lagun eta familien arteko gorabeherak kontatzen ditu. 2020an estreinatuko dute telesaila, baina dagoeneko hasi dituzte grabazioak, eta besteak beste, Elgoibarren, Soraluzen, Donostian eta Madrilan hartuko dituzte irudiak. Aste honetan bertan izan dira Elgoibarren grabatzen, eta aktore ezagunetz gain, herritar mordoxka bat aritu dira figurante lanetan. Aktore izateaz gain, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikako koordinatzailea ere bada Jon Olivares.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola iritsi zara ‘Patria’ telesailera?

Kasualitatez iritsi zitzaidan aukera hau. Abendua zen, eta Taupadaren entsegu batean nengoan, telefonoak jo zue-nean. Produzio saileko kide bat zen. Proiektuaren berri eman zidan, eta nire lanak ikusteko materiala eskatu zidan. Hainbat antzerkitako grabazioak bidali nizkien, eta hurrengo egunean deitu zidaten Madrilera joateko casting-era. Sekuentzia bat bidali zidaten, eta hura interpretatu behar izan nuen casting-ean. Pare bat egunetara deitu zidaten esanez telesailko zuzendariak ezagutu nahi ninduela eta proba bat egin nahi zutela telesailan nire anaia izango denarekin, Eneko Sagardoyrekin. Astebetean bizpahiru joan-etorri egin nituen Madrilera, eta Gabonen bueltan deitu zidaten aukeratu nindutela esateko. Eskerrak eman behar dizkiet Elgoibarko Izarrako lanki-

deei, casting-ean parte hartzeko erraztasun guztiak eman zizkidatelako.

◆ Nola hartu zenuen aukeratu izan zirela zioen deia?

Gaixorik hartu nuen! Hasieran oso urduri jarri nintzen, dardarka eta sinistu ezinda. Asimilatu nuenean oso pozik jarri nintzen, eta zorte handia izan nuela pentsatu nuen. Egunero, esnatzen naizenean, zorte handia daukadala esaten diot neure buruari. Aktore pila bat daude gogor lanean mundu honetan sartzeko eta lortzen ez dutenak, eta bila joan gabe iritsi naiz ni hona. Aukera oso ona da niretzat eta ondo aprobetxatu behar dut.

◆ Joxe Marien papera egingo duzu. Nor da Joxe Mari?

Patriak bi familiaren arteko harremana kontatzen du, bereziki bi amen ikuspuntutik. Ane Gabarain eta Elena Irureta izango dira bi ama horiek. Hasieran oso

lagunak dira, baina gatazka politikoaren ondorioz familia bakoitzak bide bat hartuko du, eta adiskidetasun hori bukatu egingo da. Ane Gabarainen (Miren, telesailan) eta Mikel Laskurainen (Joxian) se-meetako bat da Joxe Mari. ETAn sartuko da, eta horrek eragin handia izango du bi familien arteko harremanean. Oso istorio erreala da, eta beste edozein gatazka eremura estrapolatu daiteke.

◆ Protagonistak eta zuk zeuk ba al daukazue izaeran antzekotasunik?

Baietz esango nuke. Hasteko, berak eskubaloian jokatzen du, eta nik ere jokatzen nuen garai batean. Bestalde, tipo ausarta da, jendearekin ondo konpontzen da, eta harremanetarako erraztasuna dauka, eta uste dut ni ere apur bat horrelakoa naizela. Gero baditu nik inoiz bizi izan ez ditudan bizipenak, eta hori ulertzea izan da niretzako erronkarik han-

diena, hau da, egiten dituen gauzak zergatik egiten dituen ulertzea. Horretan Felix [Viscarret] berak edota beste aktoreek asko laguntzen didate. Beti daude laguntzeko prest.

♦ **Hiru hamarkada islatuko ditu telesailak, 30 urte. Nolakoa izango da zure pertsonaiaren garapena?**

19 bat urteko gaztea izango da hasieran, eta 41 urte izango ditu amaieran. Hori kontuan hartuta aukeratu ninduten Joxe Mariiren papererako. 30 urte ditut, beraz, hasieran ni baino gazteagoa izango da pertsonaia, eta gero zaharagoa. Aktore bakarra nahi zuten istorio guztirako, eta 20 urtekoa edo 40 urtekoa karakterizatzea zailagoa egiten zitzairen. Fisikoki badaukagu antza, altuak gara biok, argalak... Mila proba egin ondoren, ilearen kolorea eta orrazkera aldatu dizkide.

♦ **Aktore ezagun askorekin ari zara lanean. Nolakoak dira grabazio saioak?**

Lehenengo hiru hilabete hauetan erropak, makillajea, orrazkera... probatzen aritu gara bereziki, eta oraindik ez dut asko grabatu. Aktoreekin harreman ona daukat. Batzuk lehendik ezagutzen nituen, Mikel Laskurain, esaterako, eta beste asko orain ezagutu ditut, baina giro oso polita daukagu. Gehienak euskaldunak gara, eta lagun giroa da nagusi.

♦ **Soraluze eta Elgoibar inguruetan ari zarete grabatzen; zuretzat, etxean. Ze abantaila eta desabantaila ditu horrek?**

Gertutasuna abantaila da, grabazio jardunaldiak oso luzeak izaten direlako. Oso goiz jaikitzen gara, eta berandu amaitzen dugu normalean, eta ni hamar hamabost minutuan etxean nago. Nolabait esateko, nik egingo dut lo gehien. Erosoa da etxean lan egitea, baina era berean, surrealista ere bai. Gure lanean ordu asko ematen ditugu zain, eta Soraluzen, grabatzeko zain nengoela, jende ezagun pila bat gerturatzen zitzaidan: izeba, ama, lagunak... Arraroa, baina polita da.

♦ **Noiz eta nola hasi zenuen aktore ibildea?**

Umetan jendearen ahotsak imitatzea gustatzen zitzaidan, eta 6 urte nituela

amari esan nion bikoizketako aktore izan nahi nuela. Beste egun baten autobus geltokian Down sindromea zeukan ume bat ikusi nuen hezitzaile batekin, eta amari galdetu nion zer zeukan ume hark. Azaldu zidan, eta hezitzaile izan nahi nuela ere esan nion. 30 urte ditut, eta aktorea naiz eta irakasle ere bai. Eskoriatzan Magisteritza ikasten ari nintzela Antzerkigintza ikasgaia ematera etorri ziren Taupadako Eduerne [Lasa] eta Larra [Jose Mari Larranaga], eta haiei esker hasi nintzen honetan. Paper txiki bat eskaini zidaten *Isladak obrarako*, eta dagoeneko 10 urte daromatzen taldean. *Rusini Zirkoa* egin genuen gero, eta han Flofli pailazoa nintzen. Nigandik oso gertu zegoen pertsonaia hura eta Maitasun handia diot. Erregistroa aldatu zidaten gero, eta *Erotik* antzezlanean zoroetxe bateko zuzendari maltzuraren azalean sartu nintzen. Azken lana *Ikasgaia* izan da. Dударik gabe Taupada izan da nire oinarritzko eskola; berari esker piztu zait aktore izateko grina, eta Eduerne eta Larrari eskerrak eman behar dizkiet.

“Taupada izan da nire oinarritzko eskola; berari esker piztu zait aktore izateko grina”

♦ **Eta telebista edo zinemarekin zein harreman izan duzu ‘Patria’ aurretik?**

Oso gutxi. *Goenkalen* agertu nintzen kapitulu batean eta *Alli abajo* telesailan ere figurazio berezi bat egin nuen. Horrez gain, Taupada eta Elgoibar 1936 taldeek egin zuten *Memoriaren Ganbaratik* filmean, eta Elgetako Intxorta taldeak egin zuen 36ko Gerrari buruzko beste dokumental batean ere hartu nuen parte.

♦ **Zer duzu nahiago, antzerkia ala zinema?**

Antzerkia. Zinemagintzan ez daukat esperientzia handiegirik, baina iruditzen

zait ez daukala antzerkiak duen xarma. Antzerkia zuzenekoa da, benetakoa. Momentuan eskaintzen diozu dena publikoari, eta publikoak ere momentuan erantzuten du. Zinema dena errepikatzen da mila aldiz, eta bost minutu emittitzeko ordu pila bat grabatzen dira. Dena dela, pozik nabil eta gauza berri pila bat ikasten ari naiz. Zorte handia izan dut, eta aukera hau ondo aprobeztatu behar dut.

♦ **2020an estreinatuko da ‘Patria’. Badiozu beldurrik famari?**

Ez dut gehiegi pentsatu horretan, baina aitortzen dut oso urduri jarri nintzela aktoreetako bat ni izango nintzela publikatu zutenean. Baina orain ez dut horretan pentsatu nahi. Etorriko dena, etorriko da. 2020ra arte ez denez estreinatuko, grabazioak lasai egiteko aukera daukat, ni oraindik ez naizelako oso ezaguna. Elena [Irueta], Jose Ramon [Soroiz], Ane [Gabarain] edo Loreto [Mauleon] bera askoz ezagunagoak dira, eta jendeak kasu gehiago egiten die.

♦ **‘Patria’ eta gero, zer?**

Ba ez dakit, oraindik ez dut ezer erabaki, eta ez dakit zein bidetatik joko dudun. Momentuz eszedentzia hartuta nago Elgoibarko Izarran urrira arte. Abuztura arte grabatzen jardungo dut, irailean oporrak hartzea da nire asmoa, eta besterik erabakitzen ez badut behintzat, urrian Elgoibarko Izarrara itzuliko naiz. Momentuan momentukoa bizi nahi dut, eta ueña iristen denean hartuko ditut erabakiak.

♦ **Euskal Herrian aktore izatea posible ikusten duzu?**

Zaila da. Goenkale kendu zutenetik aukera oso gutxi dago. Antzerkirako aukera gehiago dago telebistarako baino, eta hori da nire aukeretako bat: antzerkigintza. Taupada utzi gabe, baina Taupadatik harago, beste obra batzuetan parte hartzea ondo egongo litzateke. Zinema edo telebistarako Madrilera joaten dira aktore gehienak. Nahiz eta hemen bizi, joan eta etorri ibiltzen dira lan kontuetatik.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Haizea Emakume taldekoek eskerrak eman dizkiete Sustrai eta Haritz dantza taldeei:

“Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira musika eta dantza ekitaldi bikaina eskaini zuten Kultur Etxeko sotoan Sustrai akordeoi taldekoek eta Haritz dantza taldekoek. Benetan polita izan zen! Oso gustura egon ginen guztiok. Mila esker parte hartzeagatik.



Auto-gidariak ez dute errespetatzen kiroldegi Aurreko zebra bidea:

“San Roke 14-16 zenbakien aurrean, kiroldegi parean, zebra bide gainean aparkatzen du jendeak. Aspalditik daukagu arazo hori, eta Udalak pibote batzuk jarri zituen, baina hala ere, jendeak berdin jarraitzen du. Oinezkoentzako errespetu apur bat eskatu nahi genuke”.



Ermuaranbide kaleko espaloia oztopatzen dute kamioiek:

“Kamioiak traban egoten dira Ermuaranbide kaleko espaloian, ia egunero. Umeak ikastolara eramaterakoan errepidera irten behar izaten naiz, horrek daukan arriskuarekin. Egunen baten istripuren bat gertatuko da, eta orduan beranduegi izango da. Neurriren bat hartu behar da lehenbailehen”. Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak esandakoaren arabera, kexa hau udaltzaingoaren esku dago. Hala ere, zehaztu du enpresa horiek ezin daitezkeela hortik kendu, baina era berean esan du HAPO-an (Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra) gune hori guztia ordenazioz kanpo dagoela, hain zuzen ere gune horretan enpresa berririk ez jartzeko eta bizikidetzara arazoak ekiditeko.



Mendaroko Ospitalerako bidea zuloz josita dago:

“Mendaroko Ospitalerako errepidea zuloz josita dago, eta zulo horiek gero eta handiagoak dira. Aspalditik dago lurra horrela, eta iruditzen zaigu badagoela konpontzeko beharra”. Mendaroko Udaletik jakinarazi dute aurreikusi dutela bidea asfaltatzea.



Pedro Migel Urruzuno kalean zebrabide bat behar da: "Loritoneko aldatatik igota beste aldera gurutatzeko zebrabidea zegoen lehen, baina orain ez dago, eta auto-gidariak ez dira gelditzen. Gainera, oso azkar ibiltzen dira, eta arriskutsua izaten da. Istripuren bat gertatu aurretik zebrabidea jartzea komeni dela uste dugu". Iosu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak esandakoaren arabera, kale hori "bizikidetza gune" izendatuta dago, eta ondorioz, kale guztian zehar oinezkoek dute lehentasuna, zebrabiderik egon ez arren.



Artetxe kaleko pibote hauek traba handia egiten dute: "Artetxe kaleko espaloian dauden pibote hauek traba handia egiten dute aparkatzerako orduan. Autoaren ispilutik ez dira ikusten, eta atzera botatzean oso erraza da piboteak jotzea. Aurreko baten sekulako kolpea eman nion pibote bati, eta autoaren paratxokea hondatu nuen. Ez dut uste pibote horiek beharrezkoak direnik eta eskertuko nuke kentzea".



Ezin al dira ambulanzientzako aparkalekua mugatzeko marra finkoak marratzu Basartean?: "Udaltzainek zintak eta konoak jarri zituzten aparkalekua mugatzeko, baina ambulanzianoek konoak eta zintak mugitu dituzte, behar dutena baino leku handiagoa hartuz.". Iosu Arraiz Hirigintzako zinegotziak esan du jakinarazi zaiola egoera ambulanzien enpresari, eta gaineratu du, lizentzia eskatu arte ezin dela marrarik margotu lurrean. Tramitazioan ari direla zehaztu du.



Aparkatu daiteke Día andoko aparkalekue-tan?: "Día supermerkatuaren alboan 12 aparkaleku daude marra horiz margotuta, eta aparkaleku horien aurrean dagoen enpresak hainbat kartel jarri ditu, aparkatzea debekatua dagoela eta garabiari abisua emango diola esanez. Jakin nahi genuke ohar horrek benetako balioa duten". Iosu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak azaldu du industrigune horretako enpresa batzuek beraien fatxadako aparkalekuen gune batzuk jabetzan dauzkatela eskriturretan.

Udalak ba al dauka irisgarritasun planik Albitzuri industrialderako?: "Albitzuriko industrialdera oinez joatea oso arriskutsua da, bai Meliton aldetik eta baita Azkarateko bide zaharretik ere. Ez dago espaloirik, eta argirik ere ez. Udan eguna luzea da eta tira, baina neguan ezinezkoa da lanera oinez joatea, eta arratsaldeetan handik jaistea ere arriskutsua da, ilun dagoelako. Linterna batekin joaten naiz askotan lanera, eta ez zait iruditzen hori denik modua. Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziarekin jarri gara harremanetan, eta ondorengo erantzuna eman du: "Basartetik dagoen bidea egokitzea da Udalaren asmoa, modurik zuzenena eta seguruena delako oinezkoarentzako. Izan ere, beste bi errepideetan espaloia ipintzea oso zaila da, espaloien zabalerarengatik".



Mikel Zalbide eta Andres Alberdi, joan zen astean Kultur Etxean eskaini zuten hitzaldiko une batean.

“Euskara batua hurbilago dago orain dela 500 urteko euskaratik, hemen baserrian ikasten dena baino”

▶ MIKEL ZALBIDE EUSKALTZAIN OSOA

‘Biba Hasier!’ ekimenaren barruan, Mikel Zalbide euskaltzaina (Donostia, 1951) elkarrizketatu zuen Andres Alberdi euskaltzain urgazle eta lagunak (Getaria, 1950) joan zen astean Elgoibarren. Ikasketaz, industria ingeniaria da Zalbide, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren buru izan zen 33 urtean, harik eta 2014an erretiroa hartu zuen arte. 1983an euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta 2006az geroztik, euskaltzain oso da. Bien arteko solasaldia Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu zuen, Udalaren laguntzaz, eta Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen. Euskara batuaren izateaz, emanaz eta erronkez galdetu zion Alberdik besteak beste, eta zorrotasun eta arte handiz erantzun zien galderei Zalbidek. Hizketaldi haren laburpena ekarri dugu hona, baina nahi izanez gero, www.barren.eus webgunean duzue osorik irakurtzeko.

- AINARA ARGOTIA -

♦ Zerk bultzatuta hasi zinen hain goiz euskararen kontuetan?

Seguru asko gizarte-giroak bultzatuta. Lehenengo belaunaldia izan ginen, luze-zabal, unibertsitatera iritsi ginena, eta horrek, unibertsitatera iristeak, beste gizarte-giro batera eramaten du bat. Seguru geunden, gainera, aldaketak bazezozela eta ezin zirela okerrerako izan. Etxetik jasotako euskaltzaletasuna ere bageneukan, eta hori ere funtsezkoa izan zen. Hizkuntzarekiko atxikimendua eta herri baten aldeko gogoia etxetik zetorkigun. Eta horri guztiari gehitu... parean tokatu ginela. Euskaraz banekiela eta

euskarazko eskolak eman behar genituela esanez etorri zitzaidan lagun bat unibertsitatean. Eta halaxe hasi ginen. Banuen nire alde puntu bat: hizkuntzekin ohitua nengoela umetatik. Etxetik euskara besterik ez nekien, baina eskolan alemana izan nuen lehenengo hizkuntza. Latina ikasi nuen gero, eta azkenik, ingelesa ere bai. Eta jakina, lau bat hizkuntza dituenak berea errazago erabiltzeko oinarria izaten du. Edonola ere, parean tokatzearena faktore funtsezkoa izan zen.

♦ **1981etik 2014ra, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuaren buru izan zinen. Zer ba-**

lantze egiten duzu 33 urte horietaz? Langintza horretan zerk bete zaitu gehien? Eta izango duzu, beharbada, ezin bete izan duzun egitasmorik, ala?

Balantzea bizia eta aberatsa izan da; esparru gutxitan izan du euskarak halako sarbide zabala. Gu hasi ginenean, Siadecok egindako inkestaren arabera, eskola publikoetan klaseak euskaraz emateko irakasleak ez ziren % 5era iristen, eta horietako irakasle asko edadean aurrera zihoazen, gainera. Beraz, ia hutsetik hasi ginen. Orain dela lau urte, berriz, irakasleen % 80tik gora euskaldunak ziren, eta % 5 izatetik % 90 izatera, alde handia

dago. Libururik ere ia ez zegoen gure garraian. Orain, 23.000tik gora liburu eta material badaude euskaraz eskoletarako. Gauza asko egin da, eta egindakoa aberatsa eta sormen handikoa izan da. Hemen, sortu egin behar izan genuen, hutsetik. Eta lan hori neketsua izan da, eta arriskuz betea. Politika oso sartua egon da eta dago hemen hizkuntza-munduan, eta hizkuntza-kontuetan ari denak badaki, deskuidatuz gero, kiskalita buka dezakeela.

Zerk "bete" nauen gehien? Inoiz inork konpondu gabeko arazoari konponbidea ematen saiatu beharrak. Eta zertan gelditu garen erdizka? Iruditzen zait ez dugula jakin eskola bidezko euskalduntze-lana euskalduntze-lan osoarekin uztartzen. Perspektiba global hori ahul landuta geneukan eta ahul landuta gelditu da.

◆ Zer da euskara batua?

Grafiaz, morfosintaxiaz eta hiztegiak aski bateraturik dagoen eredu egonkorra da euskara batua. Liburu, aldizkari eta gainerako paper-jiretan nagusitzen den hizkera-moldea da, batez ere idatziz erabiltzeko sortua dena eta nagusiki idatziz erabiltzen dena, baina bere oihartzuna hitzezko jardunera ere zabaltzen duena. Izan ere, euskara batuak gero eta aplikazio-ahalmen handiagoa du hitzezko (batez ere jendeurreko) mintzabide jasoa. Ikasi, eskolan ikasten da euskara batua lehenik, idatzizko formari dagokionez bereziki. Eskolako ikasketa formala ez da, hala ere, aski izaten. Zenbat eta eguneroko jardunean jardungune, harreman-sare eta situazio ugariagoetan hizkuntza-eredu hori erabili, hainbat eta aberats-zabaldubarneratuago izango dute euskara batu hori.

Beraz, batez ere erregistro formaletarako, jantziatarako eta jendeurrekoetarako erabiltzen da, eta hartarako pentsatuta dago, ez hainbat taberna zuloako. Egunerokoak baditu askoz ere baliabide zorrotz, bizi eta gatz-piperrez hornituagoak, eta ez genituzke haiek galdu behar. Baina, beharbada, gaztelaniak euskararen baitan duen inpaktu handiagatik, askotan, euskara batua eta

gaztelania batera ibili ohi dira hiztun askoren ezpainetan. Horregatik, euskaldun jator askorentzat euskara batua eta gaztelania ez dira hain ezberdinak. Asmoz, hizkuntza jasoa da, garai bateko euskara zaharraren eta euskalki gehienek bateratsu zituzten hainbat ezaugarri berreskuratu dituen. Izan ere, euskara batua hurbilago dago orain dela 500 urteko euskaratik, hemen baserrian ikasten dena baino. Baserrian ikasten dena oso jatorra da, bai, baina 500 urtean aldatuz aldatuz joan da. Euskara batuak, neurri batean, orain dela 500 urteko formetara jo du atzera, eta orduan, euskalkitik euskalkirako saltoak ondotxo txikiagoak ziren gaur baino.

“Sukalde-zulotik eta taberna-zulotik jendartera irtengo bazen, ezinbestekoa zen euskara batua”

◆ Beharrezkoa al zen/da euskara batua?

Bai. Euskarak gero bereganatu dituen zenbait esparru bereganatuko bazituen eta sukalde-zulotik eta taberna-zulotik jendartera irtengo bazen, bakoitzak etxetik genearren hura ez zen nahikoa, nahiz eta hura oso ona den eta gutxiegi apreziatu izan dugun. Beraz, bai, ezin baztertzeko dugu gaur euskara batua, eta hala izango da bihar, eguneroko mintzamolde arruntak ase ezin dituen jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta situazioetan euskaraz jardun ahal izateko.

◆ Zer balorazio egin daiteke euskara batuaren emanaz?

Esan behar da asko egin dela. Gaur jendeak oso gutxi idazten du, baina idatzi behar duenean badaki nola idatzi. Hori pauso izugarria da. Baina galdetzen badugu zenbat, nola eta zertarako egin dugun, ez dakigu, ez baita neurtu. Hori da Euskaltzaindiaren hurrengo mende-laurdeneko eginkizun nagusia.

◆ Bi kontzeptu dauzkagu: euskara batu soziologikoa eta euskara batu formala. Jende askoren ustea da euskara batua zerbait zurrunda dela; forma bat baino ez duela. Askorentzat “aurten fite igaro dira festak” ez da euskara batua, “aurten azkar igaro dira festak” baizik. Gauza bera gertatzen da “gura duzun legez” moduko esaldiekin. Ondo ulertzen al dugu zer den euskara batua?

Ez. Euskararen batasuna mononuklearra izan da, asmoz. Inguruko beste hizkuntza batzuk, alemana esaterako, multinuklearrak dira, baina guk, gaztelaniaren eta frantsesaren edertasunak itsututa-edo, nukleo bakarreko bidetik jo genuen. “Nahi duzun bezala” horren alde egin genuen, “gura duzun legez” hori baztertuta. Baina bigarren hori baztertuta, zer gelditu zaie bizkaitarrei? Perspektiba multikultural hori berreskuratu beharra daukagu. Hori ez da euskararen kalterako.

Bada beste kontu bat ere, hala ere: Gaur euskara batuaz ari garenok nola ari gara? Giputz-oinarrizko eta gaztelaniak nabarmen inpaktaturiko *Umgangssprache* bat zabaltzen ari da. Zenbaitek uste du Andoainen jaio den bat euskara batuan ari dela “dei” erabili ordez “dui” erabiltzen badu. Euskara soziologiko bat sortzen ari da, euskara batu formaletik urrunduz doana.

◆ Euskara batuari begira, zer gehiago falta da?

Egindakoa ebaluatzea. Hain gaude konbentziturik gauzak ondo egiten ditugula, ezen ez dugula ondo edo gaizki ari garen aztertzen. Egiten ari garen hori ebaluatzea falta zaigu, eta egiteko horrek mende-laurden bateko lana ekarriko lioke Euskaltzaindiari. Hortaz aparte, bada beste kontu bat: arauak ematea ez da nahikoa. Horren zabalkunde-lana egin behar da eta hori lan handia da, askotan arauak ematea baino zailagoa. Jendeak arauen berri izango badu, baliabideak eskaini, indartu eta zabaltzeko behar ditugu. Eta hor Andres [Alberdi] bera lan ederra egindakoa da. *Euskara Batuaren Eskuliburua* atera berria du, eta horrek eta Jagonet eta halako beste zerbitzuek egundoko ga-

rrantzia dute, euskara batuak bere burua indartuko badu. Hala ere, euskara batuaren erronka nagusia beste bat da. Euskarazko jarduna beharrezko edo lagungarri deneko jardunguneak, gizataldeak, harreman-sareak, eta situazioak indartu behar dira. Euskara beharrezkoa den lekuak baldin badaude, euskara batua indartuko da; bestela, behar ere ez dugu batua.

♦ Aurrera begira, zer dago egiteko?

Oker gabilta euskararen batasuna lortzea arauak ematea dela uste dugunean. Arauak eman egin behar dira, baina gero jendeak horien berri izan behar du eta zehaztu egin behar dira jendeak ondo erabiltzen jakiteko. Gero, jendeak arau horien beharra izan behar du, eta gogozko gertatu behar zaizkio. Ikasi egin behar ditugu arauok ondoren, eta ikastea belaunaldietako lana da.

♦ Euskalkiak eta euskara batua elkarren kontra dauden ustea askoren buruan dago. Adostasuna hain zaila da?

Kontua ez da adostasuna zaila edo erraza den, baizik eta adostasuna behar den ala ez. Komunitate linguistiko gehienek, handiek, badute hizkuntza estandar hori. Aldea dago eredu batutik pertsona gehienok gehienetan gehienekin erabiltzen dugun hizkuntza-aldaeretara. Gu baino hizkun-elkarte handi-zabal-osasuntsuagoetan ere hala gertatzen da sarri.

Pertsona bakoitzak patrikan ez dauka kanika bakarra. Kanika asko dauzkagu eta norekin, noiz eta nola ari garen, kanika batekin edo bestearekin jokatzeko dugu. Normala, beraz, kanika asko izatea da, baina hori gure buruan ez da erraz kabitzen. Hain gaude konbentzituak euskararen aurrerabidea batasunak ekarri duela eta ekarriko duela, ezen ez garelako konturatzen kanika guztiak behar ditugula. Zer gertatzen da, baina? Kanika horiez gain badugula kabitu ezineko baloi handi bat ere patrikan: gaztelania. Eta horrek kanikei leku asko kentzen dienez, pentsatzen dugu kanika bakarrarekin molda gaitzkeela. Kanikaren eta baloiaren arteko borroka daukagu, eta horri beste perspektiba bat eman beharko genioke.

♦ Ahozko jardunean jende dezenteak bere txokoko euskarara jotzen du esparru publikoan ere. Zergatik jokatzen du horrela euskaldun jendeak?

Askotan batua ez dakielako. Hori da motibo bat, baina ez bakarra. Euskara batuaz egingo baduzu, euskara batua behar den ingurumenak behar dituzu. Gero, gertatzen zaiguna da batua esparru formaletan erabiltzeko dela definitu dugula eta esparru formal gehienak gaztelaniak okupatuta dauzkanez, jende gutxi aurkitzen dugula esparru horietan gurekin euskaraz egiteko prest dagoena, dakiena eta egin dezakeena.

“Egiten ari garen hori ebaluatzea falta zaigu, eta egiteko hori mende-laurden bateko lana da”

♦ Gure artean nahikoa iritzi zabaldua da euskalkia dugula modu naturala eta euskara batua, artifiziala.

Orain dela gutxira arte, eta orain ere bai sarri, eguneroko jardun arruntean nagusiki edo erabat euskaraz diharduten 40 urtetik gorako gehienak belaunaldiz belaunaldi iritsi zaien mintzamolde dialektalaz hazi eta sozializatu dira, eta hartaz baliatzen dira maizenik. Naturala, arrazoiz, “bertako gehienek bertako gehienekin” ustez “betiko moduan” egiten dutena da haientzat. Era berean, bada baita ere euskaldun berrien euskalduntze-bide formala euskara batuaz egin delako eta etxetik euskaldun direnek bide hori berenaz aparteko beste zerbaite dela antzeman dutelako. Eta hirugarren puntu bat: euskara batua paperean etorri da askotan, eta eredia gaztelania izan da ia beti. Ondoko hizkuntza handi eta dotoreetatik gure hizkuntzara etengabe terminoak itzuli beharra izan dugu, eta horrek egin du artifizial euskara batua.

♦ Egin genezakeena egin al dugu?

Geneukan aitzur eta palarekin askoz gehiago ezin genezakeen egin. Alde horretatik, erantzuna baiezkoa da. Kontua da, baina, guk etxe bat altxa nahi genuela eta horretarako pala eta aitzurra ez genituela nahikoa. Hizkuntza bat nola salatu galtzetik? Horretarako jakin egin behar da, eta ezer gutxi genekien guk. Gurasoek esandakoa genekien bakarrik: etorri zela kanpotik maisu bat eta eraldatu zuela herria, eta beraz, maistra edo andereño euskaldun bat jarritz gero, euskaldunduko genuela berriro. Baina ez. Guk geneukan paradigma teorikoa ahulegia zen, eta gainera, oso gora begira jarritakoa. Bagenuen ahuldutako hiztun-elkarteak indarberritzeko mekanismo nagusien berri izateko modurik, baina ez genion kasu egin, ez zetorrelako bat guk ikasi genuen aitagurearekin.

♦ Zer ulertu behar dugu, gaztelania ari zaigula nagusitzen?

Garai batean uste genuen goia konkistatu behar genuela. Egiten genuen euskaraz kalean, tabernan eta lagunartean, baina joaten ginen udaletxera, joaten ginen eskolara... eta dena zen erdaraz. Sinistuta geunden goi hori konkistatzen genuenean, listo geneukala dena, baina bitartean lurra mugitu zaigu.

♦ Zer herri-amets berri proiektatu beharko genuke datozen hogeitau urteetarako, batez ere gazte-jendea aktibatuzko?


Askotan amets egin dugu guk nahiko genukeen Euskal Herriaz eta amets horiek piztu egin gaituzte, indartu egin gaituzte, hartan saiatzeko eginahal bizian. Gustatu ala ez, eleaniztasuna gure marka-seinalea den gizarte honetan, ahaztu egin behar dugu denok euskaldun eta euskaldun elebaker izango garen hori. Bi ideia lotu behar ditugu: Nola izan jator, autentiko eta euskaldun eta nola izan XXI. mendeko moderno. Horretarako, lehengo jatorrasun-amesleek eta lehengo egunerokotasun modernoaren aldekoek erakutsi digutena birkonbinatu behar dugu. Lan handia da, baina gure seme-alabei eta bilobei opa diezaiekegun oparirik ederrena da.



1960

Aste honetako erretratu zaharra Makina Erremintaren museotik bidali digute. Emakumeak eta industriari buruzko erakusketa egin zutenean, Gonzalo Torrek bere amaren argazki hau eraman zien. Carmen Oleaga zen bere ama, eta Sigman lan egin zuen, erretratuan ageri diren beste emakume batzuekin batera. Argazki hau 1960ko apirilaren 26an aterata dago, Margarita Estartaren despedida egunean.

Zutik: Mari Jose Korta, Mari Carmen Araolaza, Mari Tere Pedrosa+, Milagros Osoro, Miren Beloki, Mari Carmen Azkue+, Arantxa Etxaniz, Arantxa Iriondo, Mari Paz Gabilondo, Carmen Oleaga+, Avelintxu (Bilbo), Kontxi Galbuso, Arrate Etxaniz+, Be-goña Gabilondo. **Eserita:** Karmele Gabilondo, Maria Dolores Iriondo+, Rosita Herrero+, Margarita Estarta, Maria Luisa Estarta, Elvira Lejarza.



Vicenta Ecenarro Atristain

2019ko apirilaren 3an hil zen, 101 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Ikusmin handia sortu du 'Patria' telesailaren grabazioak Elgoibarren

Elgoibarko Kalegoen plaza inguruan jardun du aste honetan HBO kateko produkzio taldeak *Patria* telesaila grabatzen, eta ikusmin handia sortu du herritarren artean. Ramon Aranburu idazle donostiarren liburua telebistara eramango du HBO kateak, eta 2020an estreinatuko du. Zortzi kapitulu izango dira guztira. Fikziozko herri batean kokatzen da istorioa, eta pasarte horietako batzuk Elgoibarren grabatutakoak izango dira. Ane Gabarain, Loreto Mauleon eta beste hainbat aktore ibili dira egunotan herrian, eta horiez gain, Elgoibarko bizilagunak ere ikusi ahal izan ditugu figurante paperetan.



Herriko zortzi dantzarik hartu dute parte Elgoibarko Aurreku lehiaketan



Elgoibarko Aurreku Txapelketa jokatu zen asteburuan Elgoibarren, eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako zortzi dantzarik hartu zuten parte. Zapatuan, Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Eneko Etxaniz aritu ziren 2006-2008. urteetan jaiotakoen saillean. Domekan, 2004 eta 2005. urteetan jaiotakoen txanda izan zen, eta hauek izan ziren Elgoibarko ordezkariak: Markel Goenaga, Maddalen Oñederra, Amaia Sasiain, Jone Gil eta Aimar Almortza. Inazio Bereziartuako dantzako arduradunek jakinarazi dutenez, lan oso ona egin zuten dantzariak eta gustura gelditu ziren eman zuten mailarekin. Bi dantzari gainera, lehen hiru postuen artean sailkatu ziren. Postuari baino gehiago, jendaurrean dantza egiteko soltura hartzeari ematen diote garrantzia Elgoibarko dantza irakasleek.

Gaztetxeko biharko kontzertua bertan behera geratu da

Elgoibarko Gazte Asanbladak *Perlata* eta *Jon Dealer and the coconuts* taldeen kontzertuak zeuzkan antolatuta biharko, baina jakinarazi dute momentuz bertan behera geratu dela emanaldia, *Jon Dealer and the coconuts* taldeko kide batek istripua eduki duelako. Dena dela, aurrerago saiatuko dira kontzertu hau berriz antolatzen, eta data berria jakin bezain laster jakinaraziko dute.

Plazatik Gaztetxera bertso saioa gaur, Sutegixan, Gaztetxean

Pare bat urtez Plazatik Gaztetxera txapelketako agendatik kanpora egon da Elgoibar, baina aurten berriz ere itzuli da. Hain zuzen ere, gaur jokatuko da Elgoibarko kanporaketa, sutegixan, Elgoibarko Gaztetxean, eta txapelketako finalerdia izango da. 20:30ean egingo dute afora, eta bertso saioa 22:00etan hasiko da. Aurtengo txapelketa zazpi herritan jokatuko dute (Ondarroa, Itziar, Mutriku, Zestoa, Elgoibar, Eibar eta Deba), eta finala Debako gaztetxean izango da, apirilaren 27an. Txapelketaren 17. ekitaldia izango da aurtengoa eta helburuak hasiera batean jarritakoak direla nabarmendu dute antolatzaileek: bertsolari gazteei bertsotarako aukera ematea eta bertsoa gazteengana hurreratzea.

'Erroma Euskal Herrian' zikloko bigarren hitzaldia emango du Jokin Lanzek eguaztenean

Erroma Euskal Herrian zikloko bigarren hitzaldia eskainiko du datorren eguaztenean Jokin Lanz historialari eta EHUko irakasleak. *Gizartearen eta lurraldearen egituraketa* izenburua izango du hitzaldiak. Erromatarrek beraien erakunde politikoak eta gizarte egituraketa erreproduzitu eta bultzatzen zituzten beren menpera ekarritako komunitateetan, beti ere potentzia latindarraren interesei jarraiki. Oraingo honetan Pirinio mendebalde inguruan bizi ziren komunitateen kasuetan zentratuko da hizlaria, eta haien antolaketa sozio-politikoan Erromaren etorrerak suposatu zuen aldaketa izugarria azalduko du. Hitzaldia 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ziklo hau Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu du, Udalaren laguntzarekin.



Motxaila Eguneko bertso saioak bete egin zuten San Agustin aretoa

Motxailen zera bertso saioarekin hasi zituzten Motxaila Eguneko ospakizunak Mendaron, eta San Agustin kultur aretoa txiki geratu zen. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Alaia Martin aritu ziren kantuan, eta ez zen umorerik falta izan. Une hunkigarriak ere izan ziren, besteak beste Andoni Egañak aurten erretiroa hartuko duen andereñoari kantatu zionean. Izan ere, aretoan bertan zen Juanita Loiola aurten erretiroa hartuk oduen herriko lehen andereñoa.

Zapatuan, bestalde, Aitzbeltz kobazulora egin zuten iteera goizean, eta gero Gaztetxean bazkaldu zuten. Arratsaldean Nor Naiz taldeak kontzertua eman zuten, eta iluntzean triki-poteon ibili ziren Agosti eta Barrenarekin eta Mantxi bertsolariarekin.

Eskola jazarpenaren kontrako ekitaldia egin dute Mendaroko ikastolan



Eskola jazarpenaren kontrako lanketa egiten dihardu Mendaroko ikastolak, eta hainbat modutan lantzen dute gai hau maila desberdinetako ikasleekin. Ikasurtean zehar egindako lanaren erakuslegarri, ekitaldi berezia egin zuten eskolan joan zen astean. Eskola jazarpenaren kontrako manifestua irakurri zuten lehenengo, eta ondoren, dantza saio bat egin zuten ikastetxeko patioan. Ikastolako ikasle guztiek hartu zuten parte ekitaldian.

Euskal Koparako puntuagarria izango da bihar Mendaron jokatuko duten Kilimon Trail mendi-lasterketa



Kilimon Trail mendi-lasterketa jokatuko dute bihar (apirilak 6) Mendaron inguruetako mendietan. Iaz hasitako bidetik, zailtasun desberdineko bi ibilbide izango ditu probak, bata 23 kilometrokoa eta 1.650 metroko gainbehera positiboarekin, eta bestea, 11 kilometrokoa eta 900 metroko gainbehera positiboarekin. Bi lasterketak 16:00etan hasiko dira Herriko Enparantzatik, eta bertan egongo da helmuga ere. Luzerako 226 lagun zeuden izena emanda asteazkenean, eta 111 lagun, motzerako. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak (MTE) antolatzen du Kilimon Trail mendiko lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesarekin, eta Euskal Koparako puntuagarria izango da aurten. Iaz, Bartłomiej Przedwojewski poloniarra eta Vanessa Pelaez andoaindarrak gailendu ziren, eta poloniarrek, ia bi minutuan ondu zuen gainera Julen Larruzeak 2017an ezarritako marka, 1.54:43ko denbora eginda.

Izagirre-Iriondo bikoteak irabazi du Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak pilota eskolako Izagirre-Iriondo bikoteak irabazi du eskuz binakako Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa. Iker Izagirre elgoibartarrak eta Julen Iriondo mendaroarrak osatutako bikoteak final estua jokatu zuten txapela, martxoaren 29an, Andoainen jokatuako finalean. Tanto bateko aldeaz (16-15) irabazi zuten Murumendi taldeko Madinak eta Monrealek osatutako bikoteari.



Jose Gurrutxaga krosa jokatuko dute domekan

Antxintxikariz beteko dira Elgoibarko kaleak domekan. Iaz 800 korrikalari daude izena emanda Jose Gurrutxaga krosaren 16. ekitaldian parte hartzeko. Elgoibar Ikastolatik jakinarazi dutenez, 2002. urtetik aurrera jaiotakoek egun bertan eman behar dute izena nagusien lasterketan parte hartzeko, 12:00ak baino lehenago udaletxeko arkupeetan.

Morkaikoren mendi irteerak, orain astegunetan ere bai

Astegunetan ere mendi irteerak antolatuko ditu aurrerantzean Morkaikok. Adin guztietako herritarrei zuzendutako irteerak izango diren arren, "batik bat" erretiratuengan pentsatuz antolatu dituzte. Aurreneko irteera Larrunarri edo Txindokira (1346 metro) egingo dute apirilaren 11n, eguena. 9:30ean irtengo dira Kalegoen plazatik, autobusean, eta 18:00ak alderako Elgoibarren bueltan egotea aurreikusen dute. Morkaikok Errosario kalean duen bulegoan eman daiteke izena (eguztinetan, 19:00etatik 20:30era. Morkaiko@morkaiko.eus helbidera e-posta bat idatzita ere eman daiteke izena edo telefonoz: 658 74 07 88 (Txelu). Morkaikoko bazkideentzako prezioa 10 eurokoa izango da, eta 15 eurokoa bazkide ez direnentzako.

Angel Ibarluzea bolaria bigarren Bergarako tiraldian

Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola Joko txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten asteburuan Bergaran eta bigarren postua lortu zuen Angel Ibarluzeak, Idorben jokatu zuten lehen jardunaldian gertatu zen moduan. Ibarluzeak 8 txirlo bota zituen, Ganix Rodriguez irabazleak baino bat gutxiago. Rodriguez dago sailkapen nagusiko lidergoan (15 txirlo) eta Ibarluzea dago bigarren (14 txirlo).

Mugertza krosa irabazitakoak diren Hellen Obiri eta Joshua Cheptegei dira Munduko Kros Txapelkun berriak

Mintxeta taldeko arduradun Zigor Diez Danimarkan izan da 43. Munduko Kros Txapelketa jarraitzen. Mugertza krosa irabazitako bi saltakari afrikar, Hellen Obiri kenyarra eta Joshua Cheptegei ugandarra gailendu ziren Aarhus hirian jokatu zuten kros gogor eta aldapatsuan. Obirik aurten irabazi du Mugertza krosa eta 2017an irabazi zuen Cheptegeik. Gainera, Munduko Kros Txapelketako lehen sei sailkatuak, gizonezkoetan, egon dira Elgoibarren. Emaitza horiek Mugertza krosari "entzutea" eta "izen ona" ematen diotela nabarmendu du Diezek, eta Espainiako krosen sailkapenerako puntuak ematen dituela. "Atzerritar bat baino gehiagori entzun diot Danimarkan Mugertza krosa munduko onenetarikoa dela. Lan handia egiten dugu atleten merkatua jarraitu eta gainbegiratzeko, atletarik onenak gurera ekartzeko, eta gauzak ondo egiten ari garela erakusten dute emaitzok. Puntako atletak kontratazko ere lagungarria izango da", adierazi du. Hellen Obiri da Munduko Kros Txapelketa irabazi (aurrez edo gero) eta Elgoibarko krosetan parte hartu duen hamalagarren emakumea. Gizonezkoak, berriz, 11 dira, Cheptegeiren garaipena eta gero. Munduko txapelkun berriekin berba egin zuen Zigor Diezek Aarhusen eta Mintxetako aldapez gogoratu zirela esan zioten, munduko txapelketako ibilbideak zeresana eman baitu zituen aldapengatik. Munduko Kros Txapelketa bost alditan irabazitakoa den Paul Tergatekin ere egon zen eta *Gazelen Hatsa* liburuaren ale bat oparitu zion, 1999ko Mugertza krosa irabazi baitzuen Tergatek. Zigor Diezi elkarrizketa barren.eus-en



Carlos Mediavilla urretxuarrak irabazi du Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa

Carlos Mediavilla, Luis Epelde eta Javier Quiros dira Mugertza krosari buruzko bosgarren argazki lehiaketako sarituak. Eguaztenean egin zuten sari banaketa ekitaldia Tantaka tabernan, argazki guztiak bertan egon baitira ikusgai hilabetez, eta argazki gustu-



koenari botoa emateko aukera izan dute herritarrek. Epaimahaiak Carlos Mediavilla urretxuarrak aurkeztutako *Onena II* izeneko argazkiari eman dio lehen saria. Gizonezkoen lasterketa irabazi zuen Rhonex Kipruto ageri da zuri-beltzeko argazkian. Luis Epelde azkoitiarrak irabazi du bigarren saria, *Nekea* izeneko argazkiagatik. Javier Quiros beasaindarrarentzat izan da Herritarren Saria, *Salida* argazkiagatik.

Nesken Futbolaren Eguna, gaur

Nesken futbola plazara aterako du gaur, hilak 5, C.D. Elgoibarrek, nesken artean futbola sustatzeko. 2007tik 2010era bitartean jaiotako neskek futboleko arituko dira, 17:30etik 19:00etara bitartean, Kalegoen plazan. Realeko teknikariek gidatuko dute saioa eta Futbol Eskolan diharduten hainbat mutilek ere hartuko dute parte.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

☎ 631 975 260

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile moduan esperientzia daukat.

☎ 632 752 739

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 627 230 784

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan.

☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 247 918

Garbiketarako egiteko edo beste edozein lanetarako prest nago.

☎ 632 548 689

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.

☎ 671 989 434

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 292 690

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Asteburuetan ere bai.

☎ 643 932 943

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago.

☎ 631 506 763

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako prest nago.

☎ 631 729 476

Adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Pertsona arduratsua. Malgutasun osoa.

☎ 612 476 921

Pertsona arduratsua umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka, asteburuetan, ospitalean edo etxeko langile moduan ere bai.

☎ 612 574 783

Adinekoak zaintzeko nitzuzke, orduka. Gavez ere bai.

☎ 632 928 108

Garbiketarako egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 722 228 156

Lan bila nabil. Ekonomia ikasketak ditut. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen.

☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere bai.

☎ 612 574 783

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago.

☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Gauetan eta asteburuetan ere bai.

☎ 658 464 396

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 678 112 785

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 688 735 551 / 674 579 736

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago.

☎ 631 115 608

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest nago. Ospitalean ere bai. Berehala hasteko prest.

☎ 658 273 486

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 643 355 834

Autonomoa eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko.

☎ 631 790 555

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago.

☎ 688 718 853

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientzia daukat. Orduka egingo nuke lan.

☎ 690 134 485

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia.

☎ 626 407 923

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan ere bai.

☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Malgutasun osoa.

☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko nitzuzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest.

☎ 612 574 783

Erizaina lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko prest.

☎ 632 752 739

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia.

☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zaintzeko nitzuzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zaintzeko nitzuzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.

☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.

☎ 612 296 098

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.

☎ 602 027 589

30 urteko esperientzia duen zainzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. (Elena Agirre)

☎ 943 742 330 / 660 511 781

Eskaerak

Meraki ile-apaindegian laguntzaile postua eskaintzen da, lan-jardun erdiz eta berehala hasteko.

☎ 634 261 485

PARTIKULARRAK.....

Baixilegoko matematika eta kimikako klase partikularak emango dituen irakaslea behar dugu.

☎ 645 728 812

LH eta DBHko eskolak ematen dira. Baita Batxilergoko ingelesa ere.

☎ 630 055 077/ 666 667 183

LH, DBH eta Batxilergoko matematika, kontabilitatea eta finantza ekonomia klase partikularak ematen dira.

☎ 666 042 710

ETXEBIZITZAK.....

Logela bat hartuko nuke alokairuan El-goibarren. IMHko ikaslea naiz.

☎ 690 944 234

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut, Jausoron.

☎ 647 216 314


BESTELAKOAK.....

Audifono bat aurkitu dugu larre inguruan. Udaltzaingoa utzi dugu.


☎ 645 008 351

OSPAKIZUNAK.....

1969koen kinto bazkaria maiatzaren 18an, Sigma jatetxean. 12:00etan batuko dira Leku Ederren, eta 12:30ean aterako dute argazkia. 69 euro ordaindu behar dira, kontu honetan: ES53 3035 0007 2500 71136817



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Entidad Pública Administradora de Recursos Humanos



ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure eraikina zaharra da eta aurreko aldera dauzkagun egurrezko balkoiak nahiko egoera txarrean daude. Bai balkoiak zein fatxada oso egoera txarrean daude, eta horren ondorioz, hezetan arazoak agertu dira barruko aldean ere. Aurreko batzar batean fatxada konpontzea adostu genuen, baina baita bizilagun bakoitzak bere balkoia konpontzea ere. Jakin nahiko nuke balkoiak konpontzea nori dagokion.

Fatxada eraikineko elementu komuna da: batetik, eraikinaren aurrealdearen estalkia da, eta bestetik, kanpo itxura konfiguratzeko du. Eguraldiak zuzenean eragiten dio fatxadari, kaltetzeraino. Horregatik, aldiro-aldioko zaintza ezinbestekoa du fatxadak, nahiz oso gutxitan egiten diren halakoak. Baina kalteak agerikoak direnean lehenbailehen ekin behar zaie berritze lanei, besteak beste arriskua dagoelako zatiren bat kalera jausi eta hirugarren pertsonari kalteak eragiteko.

Balkoiak fatxadako elementuak dira. Horregatik, etxebabeen komunitatearen ardura da haiek konpontzea. Bai, kanpo aldetik zein barrutik, isolamendu edo bakartze funtzioa egoki bete dezaten.

ONDORIOA: Etxebabeak ezin du balkoia aldatu edo konpondu horren kompetentzia komunitatearena delako. Komunitateak balkoiak berritzeko eta zaintzeko betebeharra du, eta hala behar izan gero, baita aldatzeko ere.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Eulali!** Iritsi da eguna, azkenean. 7 urte! Patxo handi bat.



Zorionak, **Danel!** 5 urte biribil, txapeldun! Laster harrapatuko dituzu anaia. Muxu handi bat.



Zorionak, **Aloine,** igandean 9 urte beteko dituzulako. Muxu bat familia-koen partez.



Zorionak, **Aimar,** gaur 12 urte egin dituzulako. Muxu asko aitiita eta amamaren partez.



Zorionak, **Julen,** bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko aita-txo, amaxo, osaba-izeba eta lehengusuen partez.



Zorionak, **Nora!** 11 urte! Asteburuan ederki ospatuko dugu! Zorionak eta patxo handi handi bat etxekoan, eta bereziki, Iratiren partez.



Eskerrik asko, lagunak! Primeran pasatu genuen astelehenean, apirilaren 1ean, gure urtebetetze festan. **Anuska** eta **Lukeneren** partez.



Zorionak, **Julen,** bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia-ko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

*Keopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartzeko.*

IKASBAI
AKADEMIA

IKASGO
ACADEMY

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaeelgoibar@gmail.com

<p>IKASGO ACADEMY</p> <ul style="list-style-type: none"> ● INGELES ERREFORTZUA ● CAMBRIDGE AZTERKETAK ● TALDE TXIKIAK 	<p>IKASBAI AKADEMIA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● LH ETA DBH ● GAI GUZTIAK ● EUSKARA ERREFORTZUAK
---	--

<p>QE55Q80R SAMSUNG LED TELEBISTA</p> <p style="font-size: 2em; color: red; background-color: white; padding: 5px;">1999€</p> <p>55" QLED / Q80R / Q HRD 1500 4K / smart TV / HRD 10+(HLG) / 3.700 PQI bluetooth / WI-FI / 4HDMI / 3USB</p>	<p>FWG81284SB.SP WHIRLPOOL ARROPA GARBIGAILUA</p> <p style="font-size: 2em; color: red; background-color: white; padding: 5px;">419€</p> <p>Sense Inverter motora Fresh care + (arropen freskotasuna zaintzen du) Clean+ funtzioa: arropen garbiketa optimizatua A+++ / 8Kg / 1200 R.P.M.</p>	<p>3KF6853MI BALAY COMBI HOZKAILUA</p> <p style="font-size: 2em; color: red; background-color: white; padding: 5px;">699€</p> <p>A++ / NO FROST / INOX / 203zm</p>
--	--	---

5 BARIXAKUA

18:30 Erakusketa: Egur Arte Eskolako umeen lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 13ra arte.

17:00 Futbol Eskolaren Eguna. C.D. Elgoibarrek antolatuta, futbol partidak jokatuko dituzte Kalegoen plazan.

19:00 Ekitaldi politikoa. Jon Peli Uriguen Elgoibarko EHBilduren alkategaia eta Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako Ahalduzko Nagusia, Giza Eskubideen enparantzan.

20:30 Aurrez grabatutako opera emaldia: *Red square concert*. Herriko Antzokian.

20:30 Plazatik Gaztetxera bertso saioko afaria. Gaztetxean.

22:30 Plazatik Gaztetxera bertso saioko Elgoibarko kanporaketa. Gaztetxean.

21:30 Zine foruma: *No soy un hombre fácil*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik dinamizatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

6 ZAPATUA

16:00 Kilimon Trail. Mendaroko mendi lasterketa, Herriko Enparantzan hasita Mendaroko Txirindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak Udalaren laguntzaz antolatuta.

7 DOMEKA

10:30 Jose Gurrutxaga krosa. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko dira lasterketak.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

1. *Embrujo de Anna* (R. Domenech)
2. *1405, el incendio de Berna* (M. Burki)
3. *Candide* (L. Berstein)
4. *King-Kong* (J.N. Howard)
5. *Danzon N°2* (A. Marquez)

8 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: *Egunero da martxoak 8*. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

10 EGUAZTENA

18:30 Elgoibarko idazlan lehiaketaren sari banaketa. Musika Eskolako auditoriumean. Euskara, Kultura eta Gazteria Sailak antolatuta.

18:30 Mendaroko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa bati buruzko batzar informatiboa Mendaroko Udaltzatza aretoan. Espedientea aurkeztuko zaie herritarrei, haien ekarpen eta iradokizunak jasotzeko.

19:00 Erroma eta Euskal Herria hitzaldi zikloa: *Gizartearen eta lurraldearen egituraketa*. Hizlaria: Jokin Sanz. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 EHBilduren auzoz auzoko bilera: Sigmako bizilagunekin batuko dira, Sigmako eskoletan.

11 EGUENA

14:30 Herri Eskolako Haur Hezkuntzako haurren Korrika txikia. Txanpinoian hasi eta eraikin nagusira arte.

18:00 Hitzaldia: Arauak, hazten laguntzen duten mugak. Idoia Apaolazak eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailerak: Kalamua, Arreiturrekoak, Haurreskolako eta Ikastolako guraso taldeak eta Ongizate Saila.

Korrika aurreko festa Mendaron

16:45 Haurrentzako jolasak plazan.

17:45 Dantzak Kaleko Antzerkiak taldearen eskutik.

18:00 Kalejira trikitilari eta buruarinekin.

12 BARIXAKUA

6:50 Korrikaren lekukoa hartuko dute mendarorrek txatarri parean.

Korrikari ongi-etorria Elgoibarren

7:00 Mauxitxa txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik, Maalaraino.

7:15 Korrikari ongi-etorria, Txaridunako biribilgunean, Mauxitxa txaranga giro-tuta.

10:30 Korrika Txikia, Maalako parkean hasita.

11:00 Korrika Txikia, Mendaron.

11:30 Korrika Gaztea. IMHk, Mekak eta Institutuak antolatuta.

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

19:30 Musika Eskolako bandaren kontzertua, Maalako parkean.

20:30 Antzerkia: *Rita arrastoan sartzen*. Txalo produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: *The sick and the indigent song club*. Sinüsek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

LAGUNAK
colchonería textil hogar
Bisita gaitzazu!

UDABERRI-UDARAKO OIHAL BILDUMA BERRIA

- Neurriera egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
5 BARIKAKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)

'Una cuestión de género'
6 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
7 domeka: 19:00
8 astelehena: 21:30

'Cómo entrenar a tu dragón'
7 domeka: 16:30

'El ángel'
(Ongarri)
11 eguena: 21:30

Martxoan hildakoak

- . **Angel Maria Casado Rebollo** 56 urte, martxoak 4
- . **Santiago Carrascosa Camacho** 78 urte, martxoak 4
- . **Mari Carmen Azkue Villar** 88 urte, martxoak 9
- . **Miguel Ordoyo Galan** 91 urte, martxoak 16
- . **Puri Iriondo Agirregomezkorta** 89 urte, martxoak 21
- . **Jose Luis Arrese Arizmendiarieta** 92 urte, martxoak 26
- . **Carmen Elorza Zubiaurre** 88 urte, martxoak 31



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA


943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iosu Juaristi

Iñigo Otaño



Mendi horiek urdinez tindatuko bagenu, itsasoa direla emango luke, zeruari koska egin nahian dabilen itsaso bizi eta zakarra. Ahaztuen itsasoa. Hiru urteko haurrak goizegi ezagutu zuen zer zen hori, ahaztua izatea. Abandonatua. Itsasoa sekula ikusi ez eta bat-batean, itsasoaren erdian, itsasoak berak irentsi behar zuela zirudien. Bera, eta berarekin zihoazen gai-

nontzeko gizaki beltzaran dardartiak.


Goian, zeru urdinetik axolagabeki pasatzen ziren hodei zuri garbiak; beraiekin ez zihoan borroka hura. Behean, itsaso ilun zakar gositia. Eta inguruan, hainbeste aldiz amestutako kostea europarraren arrastorik ere ez.

Itsasoaren danbatekoak izugarriak izanda ere, tinko eusten zioten ontzia baino gehiago intxaur eskola zirudien hari. Ur gainean zirauten minutu bakoitza, esperantza apurra eusten zuen hari fina bilakatzen zen. Baina egoera gero

eta larriagoa zen, danbatekoak gero eta handiagoak. Ezin luzaro eutsi horrela. Itsaso gaiztoaren marrumak gizaki haien etsipena eta negarrak irensten zituen.

Haurraren ez zen ordea negar arrastorik, mendizaleak bere bizitzaren euskarri den sokari heltzen dion bezalaxe, haurrak bere amaren besoa gogor estutu eta salbu sentitzen zen. Bere begiak izan ziren, malkorik ez zeukatelako, urrunean ageri zen hizki gorridun zapi zuria ikusi zuten lehenak, erreskate ontziaren bandera.

“Itsaso gaiztoaren marrumak gizaki haien etsipena eta negarra irensten zituen”



Antonia Larruscain Egaña

2019ko apirilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Beti izango zaitugu gure bihotzean.

Etxekoak



I. URTEURRENA

Maria Nieves Orbea Eguia

2018ko apirilaren 7an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, apirilaren 6an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zareteneoi aldez aurretik eskerrak.



V. URTEURRENA

Rosario Zulaika Osa

2014ko apirilaren 3an hil zen. Haren oroimenez
V. urteurrenako meza izango da, zapatuan, apirilaren 6an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zareteneoi aldez aurretik eskerrak.




Eskertzak eta urteurrenak
943 744 112



Juan Betelu Azurmendi

2019ko apirilaren 3an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



**Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.
Gure bihotzetan
beti maite izango zaitugu.**



Senideak

Gremioen gida

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tender@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Oid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzaleftabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIAK

BIENA S.L.
AROTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

Ulazia
AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albituri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

MAR
AROTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

f

iraolagoitia
arotegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

Arotetgia · Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaarotetgia@gmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK

Hércules

658 710 898

Iturgintza
■
Arotetgiak
■
Izurrien kontrako
tratamenduak
■

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Leihoak
■
Pintura
■
Elektrizitatea
■
Igeltseritza
■

